



EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA
Industria Sailburuordetza
Proiektu Estrategikoen eta Industria
Administrazioaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y
MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Industria
Dirección de Proyectos Estratégicos y
Administración Industrial

SGI/2023/01 ZIRKULARRA

GAIA: IGOGAILUEN ISTRIPUEN

Azken aldi honetan, igogailuetan izandako istripuen berri eman da, istripua gertatu zenetik hilabete baino gehiago igaro denean.

Istripuei buruzko informazioari dagokionez, honako hau adierazten da:

- a) Industria-segurtasunari buruzko ekainaren 30eko 81/2020 Dekretuak 14 e) artikuluan ezartzen duenez, industria-segurtasuneko jardueren titularrek, besteak beste igogailuak kontserbatzeko gaitutako enpresen titularrek, betebeharrak hauek dituzte:

“e) Segurtasun industrialeko Administrazioari jakinaraztea, jakinarazpen baten bidez eta, gehienez ere, hogeita lau orduko epean, haien titulartasuneko jardueran edo instalazioan gertatutako istripuak.

Dekretu honetan ezarritakoaren ondoretarako, istripuztat hartuko dira segurtasun industrialeko jarduera edo instalazio baten garapen edo funtzionamendu normala aldatzen duten aldi bateko gertaerak, horietan pertsonak, ondasunak edo ingurumena kaltetzen badira.”

- b) Otsailaren 8ko 88/2013 Errege Dekretuak, azaroaren 8ko 2291/1985 Errege Dekretuaren bidez onartutako jasogailuei eta mantentze-gailuei buruzko Erregelamenduko AEM-1 «Izogailuak» jarraibide tekniko osagarria onartzen duenak, 7.5 atalean ezartzen du enpresa kontserbatzaileek betebeharrak hauek dituztela, besteak beste:

“7.5 Pertsona edo gauzei kalteak eragin dizkieten istripuen kasuan, Autonomia Erkidegoko lurralde-organo eskudunari jakinarazi beharko dio, eta igogailuaren zerbitzua etenda mantenduko du, dagokion konponketa eta ikuskapena egin arte, hala badagokio, eta organo horrek baimena eman arte.”

- c) 5/2014 Dekretuak, urtarrilaren 28koak, igogailuen mantentze-lanak eta aldizkako ikuskapenak egiteko prozedura ezartzen duenak, 4. artikuluan ezartzen du igogailuen enpresa kontserbatzaileen betebeharrak:

“4. – Industria arloan eskumena duen lurralde-ordezkaritzari honako hauen berri emango diote idatziz:


- a) *Kontserbazio-zorroko altak eta bajak, gehienez ere 30 eguneko epean, enpresa kontserbatzailea aldatzeagatik edo urte-sasoiko funtzionamenduagatik, II. eranskinean adierazitako formatua erabiliz.*

Aparatu bati alta emateko, II. eranskineko dokumentuaz gain, mantentze-kontratua, kontrol-erakunde batek egindako aldizkako ikuskapenaren azken ziurtagiria eta igogailuak eraikinean duen kokapenaren eta instalazioaren ezaugarrien plano edo krokis bat erantsi behar dira.

b) Instalazioari, pertsoneri edo ondasunei kalteak eragiten dizkieten istripuak, ahalik eta lasterren eta gehienez 24 ordu baino lehen. Horretarako, III. eranskinean adierazitako formatua erabiliko da.”

81/2020 Dekretuan ezarritako istripuaren definizioa ikusita, jarduera edo instalazio baten ohiko funtzionamendua aldatzen duen eta pertsona, ondasun edo ingurumenari kalteak eragiten dizkion gertakari oro, instalazioa bera babestu beharreko ondasuna izanik, berehala jakinarazi behar zaio Administrazioari, gehienez ere 24 orduko epean; 5/2014 Dekretua aplikatuz, aipatutako dekretuaren III. eranskinean argitaratutako formatua erabiliko da, eta aparatua geldituta geratu beharko da dagokion konponketa edo ikuskapena egiten ez den bitartean, hala badagokio, eta dagokion ordezkartzak baimena ematen badu zerbitzura itzultzeko.

Jakinarazpen hori egiteko, zerbitzuan dauden igogailuei dokumentazioa aurkezteko prozedura erabili beharko da. Hori adierazi beharko da istripuen berri emateko aukera berrian (1. irudia), eta posta elektronikoz dagokion ordezkartzaren ataleko postontzian.



1. Irudia

La no comunicación de un accidente o el retraso en la misma son incumplimientos de las obligaciones que establece la normativa aplicable para las empresas habilitadas en la conservación de ascensores, por lo que podría incoarse el correspondiente expediente sancionador.

Vitoria-Gasteiz, sinatzen den eguna.

Fdo. ANTTON ARRIETA INSAUSTI
INDUSTRIA SEGURITASUNEKO ARDURADUNA
PROIEKTU ESTRATEGIKOEN ETA INDUSTRIAI ADMINISTRAZIOAREN
ZUZENDARITZA
EKONOMIAREN, GARAPEN,
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE